



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2009-04-02

VII. URTEA 1.669. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

BENITO LERTXUNDI MUSIKARIA

«Kezka ezberdinetatik sortuak dira kantuak, baita hitzak ere»

TOLOSA 'Itsas ulu zolia' bere azken lana aurkeztuko du musikari oriotarrak, bihar, Leidor aretoan, 20:30ean

KONTZERTUA Disko berria duen bakoitzean Tolosan aurkeztzen du, «oso hurbileko herria» sentitzen baitu z



Benito Lertxundi, itsasoari begira, atzo, Orion. ASIERIMAZ

Hainbat ekitaldi Haur Liburuaren Egunaren harira.



Edurne (irudian), M. Jose, Pili eta Izaskun gurasoak animatu ziren ipuinak kontatzera, atzo Bidegoianen. Nahia txikiak ere irakurri zuen ipuin bat. NURBIZU

Terrorismoaren biktimak omenduko ditu Tolosak urtero 2

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA
Korrikarekin bat!

Gaur **KORRIKA** Tolosaldean sartuko da, animatu eta parte hartu!

10:41	11:00	11:26	11:46	11:52	12:25	12:31	12:44	13:04	13:17
Izategilea	Alegia	Tolosa	Ibarra	Tolosa	Anoeta	Irura	Villabona	Zizurkil	Aduna



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pareta** du

Bruesa GBC
Alta Gestion Fuenlabrada

Donostiako Ilunben
Apirilak 5. Igandea • 12:30ean

sarrerak eskuratzeko deitu:
943-34 03 30
harpidedun kodea eskura duzula
jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu.
Saridumen izenak Apirilaren 4ko egunkarian.



TXOKOA hitza

E Elkarrizketa**BENITO LERTXUNDI** ▶ Musikaria

Kultura ▶ Bihar musikari oriotarra Leidor antzokian izango da bere azken lana, 'Itsas ulu zolia' izeneko aurkezten; 20:30 inguruan hasiko da emanaldia.

ESTI EZEIZA

Benito Lertxundi musikari oriotarra bere azken lana, bere ibilbide luzeko hamabosgarrena, aurkeztuko du. *Itsas ulu zolia* jarri dio izenburu hamar kantuz osatutako bere lan berriari. Emanaldia Leidor antzokian izango da, 20:30etik aurrera.

Nolako izango da bihar eskainiko duzun kontzertua?

Alde batetik, azken diskoko kantuak aurkeztuko ditut, ez denak, baina bai zazpi edo zortzi. Eta bestetik, beste diskoetako, eta garaietako abestiak joko ditut. Gero, beti izaten dira ere, oraindik argitaratu gabeko kantuak ere.

Disko berri bat argitaratzen duzun bakoitzean etortzen zara Tolosara, bertako entzuleak ezagutzen dituzu beraz. Nolako dira?

Tolosa beti egin zait oso hurbila eta etxekoa. Urte asko daramatzazuenan kantuan, Euskal Herriko entzule gehienak ezagutzen dituzu. Batzuk hurbilagokoak egiten zaizkizu batzuk besteak baino gehiago, eta agian, Tolosan ezagun asko ditudalako, baina oso gertukoak egiten zait.

Azken lanean, bakeaz eta itsasoz mintzatzen zara.

Itsasoari buruzko bi kantu daude. Bat, XVI. mendeko testua da. Garai bateko itsas bizitzaren giroa islatzen du, Terranovara joaten zireneko garai zail eta latzak adierazten dituena. Bestea berriz, asmakizuneko da, baina askotan gertatu den itsas tragedia indibiduala kontatzen duena: marinela itsasoan galtzearena... Kantuak kezka ezberdinetatik sortuak dira, baita bertako hitzak ere. Herri bateko postala narratzen duen kantu bat dago, baita desertuko kantu bat ere, eta nire grin berezia den arru-narekin lotutakobat ere. Kantu bakoitza mundu bat da, eta 10-12 dituzunean elkartzen dituzu disko bat osatzeko. Abesti bakoitza bide desberdin batetik etorri da, nahiz eta gero diskoak batzen dituen.

Mendiaguenen 'Kantuz' abestiaren bertsio bat egin duzu, honek nolobait, zure bizitza kontatzen duela dirudi.

ASIER IMAZ

«Kantuak kezka ezberdinetatik sortuak dira, baita hitzak ere»

Kantu hori edozein kantugilek abestu dezakeen kantua da, eta ziurrenik berea dela emango luke. XIX. mendeko kantari batek egin zuen bere buruarentzako, eta hau begi bistakoa da. Beraz, bizitza guztiak kantuan daraman batentzako oso aproposa da. Horren adibide, nik bezala, Laboak ere abestu zuen beste bertsio bat eginaz. Beharbada, nik egin dudana bertsioa ohiko moldaketatik ateratzen da, pixka bat narratiboagoa eta intimoagoa egiten da.

Itsasoa horren maitea izan arren, modu tristean hitz egiten duzu berataz?

Bi kantuetan esaten dena tristea da. Termuara zihoazen marinela agurtzen baitziren, eta askotan bertirako agurtzen baitziren. Garai hartako kronikek ziotenez, Atlantiko guztia garai hartan zeharkatzea, hango baldintzetan egotea eta gero itzultzea oso zaila zen. Batean ez bazen bestean, itsasoak bere baitan hartzen zituen. Beste

kantua ere marinela galdu baten balada da. Azken batean, gertakizunak tristeak direnean, triste moduan abesten dituzu. Baina itsasoa

Ez dakit zergatik baina, mundu guztiak jarrera berezia dauka itsasoaren aurrean, ederra baita

berez ez da tristea, gauza barea da, handia, ederra, eta nolobait, gure ama dela esango nuke. Bizia hortik baitator. Ez dakit zergatik, baina mundu guztiak jarrera berezia dauka itsasoaren aurrean, ederra eta maitagarria delako. Beharbada, gure gogo egoera ere berezia egiten duelako. Jendea oso barnerakoi, eta pentsakor jartzen da itsasoari begira.

Zuretzat, inspirazio iturri al da itsasoa?

Itsasoaren aurrean bizi naiz, eta hau bizitzeko da lagungarri. Bizitzan zehar gauza batzuetara ohi-

tzen bazara, ohitura horiek egiten dute ezinbesteko izatea elementu bat edo beste. Ni hemen sortua naiz, beti izan naiz itsasoaren aurrean, eta modu bateko edo beste hurremanekin izan ditut. Hori dela eta, bizitzen laguntzen didan bezala, kantuak egiten laguntzen dit. Inspiratu gauza askok egiten gaitu. Azken batean, inspirazioa, asmoa besterik ez da.

Disko honek aurrekoek baino kutsu alaiagoa duela diote askok. Horrela dela uste al duzu?

Askok entzun dut hori. Baina pixka bat arraroa egiten zait. Kantu tristeak, gogoeta egitekoak, amorratuz egindakoak... daude. Zerk esanarazten dio jendeari alaiagoa dela diskoa? bi kantuk bakarrik ziurrenik, *Haizeak* eta *Mirotzak*. Bi horiek markatzen dute nolobait, diskoaren idiosinkrasia. Gaintzeko abesti gehienak ez dira alaiak. Horregatik, esango nuke kantu gehiago daudela bareak edo tristezia puntua ematen dutenak. Baina di-

rudienez, hauek markatzen dute ildo dagusia.

Mirotzak kantua aipatu duzu, erraza izan al zen Orioko arraunlariak kantuan jartzea?

Ez zen erraza izan. Hasieran pixka bat ukatu ere egin ziren. Zuzenean hartutako grabaketa baten diskoa eman nien, kantuarekin eta testua paperean jarrita, etxean entseguak egiteko. Hurrengo bi asteetan, aurpegi arraroarekin begiratzen zidaten, uzkur bezala. Batean, arraunlarietako bat topatu nuenean, galdetu nion ea zer moduz ari ziren horrekin. Eta aurpegi kezkatu batekin honela erantzun zidan, «ez al da abesti zaila hau guretzako?». Hitz asko arrotzak egiten zitzaizkien, eta ez zituzten ulertzen. Horregatik, zer abesten zuten ez jakitearen sentsazioa zuten. Gero, ongi azaldu nien guztia eta etxeko zuten. Ondoren, gustura geratu ziren emaitzarekin. Gainera, SGAE saria irabazi zuen kantuak.

40 urtetik gora eta 15 disko, nola egiten da horrenbeste urte hor goian egoteko?

Urteetan irauteko, ezinbestekoa da belaunaldi ezberdinak igarotzea. Izan ere, duela 44 urte hasi nintzen kantuan, eta orduko entzuleen %95a baino gehiago ez dator kantaldietara. Haien ondorengoak hasi ziren gero, eta gaur egun, hurrengoak datoz. Hiru belaunaldiko transmisioa egiteko, zerbait

Euskal Herriko entzule gehienak ezagutzen ditut; eta Tolosa beti egin zaitu oso hurbilekoa

egin behar duzu, hauen gainetik joango dena. Ni adibidez, ez naiz lehenengo kantari sentitzen, gaurko baizik. Egungo belaunaldi abesten diet.

Zein da belaunaldi hauen gainetik igarotzeko formula?

Ez dago formularik, bestela, salgai egongo litzateke eta edozeinek erabiliko luke. Izateko modu bat, eta gauzak egiteko era bat da. Mugiendu bat dago zugar, eta hau ere bizitzan ibili egiten da, zurekin batera. Azken batean, guk egiten duguna uhin batzuk igortzea besterik ez da, eta hauek, jendeak sentitzen ditu edo ez. Nik beti esaten dut ez dakidala kantuak nola egiten diren. Horrela baitz bat amaitzerako beste bat sortuko nuke. Egun batean zerbait hasten da ateratzen, haur bat balitz bezala, eta tiraka hasten zarahari horri, eta ateratzen da. Horra zure senak ematen zaitu, formalizatuta ez dauden gauza horiek.

16. korrika euskaraz bizi nahi dugunon herrira

www.korrika.org

Beasain	Ordizia	Tolosa	Lasarte	Zarauz	Arpeltia	Elgoibar	Mutriku
09:04	09:36	11:26	14:46	17:29	20:42	22:33	00:55
	Itsasondo	Andoain	Usurbil	Zumaia	Arzuffia		
	10:09	13:30	15:53	18:52	21:09		

Terrorismoaren biktimak omenduko ditu urtero Tolosak ekitaldi batekin

Politika » Maiatzaren 29an plaka bat jarriko dute Aranburu jauregiaren alboan, biktimen izen-abizenekin.

INIGO TERRADILLOS

Terrorismoaren Tolosako biktimen oroimenez omenaldi ekitaldi bat egingo du herriak urtero, «bihotz-bihotzetiko omenaldia». Hala adostu zuen herenegun Udaltzako egin zuen Osoko Bilkuran, aho batez, EAJ, EA, PSOE eta PP alderdiko aldeko botoekin. Ekitaldia maiatzaren 29an izango da, 12:00etan, eta bertan plaka bat jarriko dute gune publiko batean —ziurrenik Aranburu jauregiaren inguruan.

Plaka honetan, terrorismoak—ETA eta GAL erakundeek—hildakoen izen-abizenak jarriko dira. Ekimenak bi helburu ditu: «alde batetik, inoiz kendu behar ez zitzaien duintasuna eta estimazio sozial eta politikoa itzultzea biktimei. Eta, bestetik, erakundeen duintasun moral eta zibikoa berrestea, helburu politikoak lortzeko metodo gisa indarkeria terrorista deslegitimatuz». Udalak herrikeria eta gizarte-erakunde guztiak deituko ditu ekitaldietara joan eta parte har dezaten.

Terrorismoaren biktimei aitormen moral, politiko eta soziala egitea oraindik ere gainditu gabeko



Herenegun Osoko Bilkuraren une bat. KLUSK

ikasgaia dela dio mozioak. «Biktimek urteotan metatutako aitormen-eza gure herriak aspalditik egin duen zorra da, lehenbailehen kitatu beharrekoa».

Herritar guztiak dutela honetan zeresana adierazi zuten plenoan, izan ere, «Udalak dira herritarrengandik hurbileneko erakundeak eta, eraberean, indarkeria terroris-

taren zentzugabekeriak eragindako mina jasan duten biktimengandik hurbilen daudenak».

«Aspaldiko zorra»

Jokin Bildarratz Tolosako alkateak bilkuran azaldu zuenez, «terrorismoak ikaragarri eragin du gure harremanetan, kulturean, ekonomian, nortasunean... 24 lagun bai-

no gehiago hil dira gurean, eta ezin da ahaztu 580 zinegotzi daudela egun bizkartzainekin». Hala bar-kamena ere azaldu zuen, «denboragehiegi igaro baitugu horrelakorik egin gabe».

Anjel Yañez PPren zinegotziak aipatu zuen urte askoan itxaron duela horrelako mozio bat onartzea Tolosako udaletxean, eta eskerrak eman zituen.

Oscar Renedo PSE-EEren zinegotzia hunkiturik azaldu zen; «Egun handia da Tolosarentzat, izan ere, biktimek oroitzapenean egon behar dute, eta ahanzturan eta albo batean sentitzen dira oraindik ere», adierazi zuen, eta Juan Mari Jauregi gogoratu zuen.

Andoni Iturzaetak, berriz, EArren izenean esan zuen biktima guztiak egiten dutela bat, eta onartu den mozioak «beraienganako errekonozimendua, gure babesa eta biktimei duintasuna azaltzea» esan nahi duela.

Osoko Bilkuran onarturikoak

Herenegun Osoko Bilkuran klima aldatetaren aurkako Udalen antzerkia eredu ere onartu zen. 6 herrirarte artea ari dira osatzen, eta hainbat ekimen bultzatuko dituzte.

Bestalde, etxeetan igogailuak jartzeko laguntza ekonomikoak

ematea ere onartu zuten aho batez. 2007tik igogailua jartzeko lizentzia eman zaienak hartuko dira kontuan; igogailuaren kasuan, %15ean lagunduko du Udalak (gehienez, 6.000 euro), eta plataformaren kasuan, %10ean (gehienez, 1.200 euro).

Gernikako erailketa salatzeak

Gernikan gertatu berri den tolosar emakumearen erailketa salatzen duen mozioa ere onartu zuten. Ekintza «iguingarri» horri gaitzespenik gogorrena azaltzeaz gain, elkartzatua adierazten dio Udalak sendiari.

Batelak » Etzi jokatuko dute azken jardunaldia; igandean Gipuzkoako Txapelketa eta sari banaketa izango dute.

ERREDAKZIOA

Zumaian eta Pasai Donibanen lortu berri dituzten garaipenekin Tolosaldeko Arraun Klubeko (TAK) neskei jardunaldi bat baino ez zaie geratzen batelaren liga amaitzeko. Modu ezin hobean amaituko dute gainera, bandera ia ziurtaturik baitute.

Izan ere, San Pedron izango den jardunaldia baino ez da geratzen, eta esan daiteke bandera euren eskuetan dagoela. Jardunaldia bertan behera utzita edota kaleratu izanagatik galduko lukete soilik bandera.

Bestalde, TAKetik nabarmendu nahi dute 3brontzezko domina ere lortu dituztela, eta infantil-kadete neskek, infantil mutilak eta jubencil mutilak izango dira podiora igoko direnak saria jasotzera. «Dominek talde osoa indartzeko balioko dute, arraunlarietatik hasi eta entrenai-

TAKeko neskek ia ziurtaturik dute aurtengo ligaren bandera



Tolosaldeko Arraun Klubeko nagusien mailako neskek. HITZA

tzaileetara, eta baita zuzendaritzako kideak ere; izan ere, denboraldi zaila izan da, hainbat zailtasun izan baititu trenatzerako orduan, ibaiaren handitzea eta kolektorearen obrak direla-eta», azaldu dute. TAKeko arduradunek arazo hauek ahalik eta azkarren konpontzea espero dute, eta ikastetxeek antolatzen dituzten estropadaketa Beleta elkarteak ur-

teurren dela-eta maiatza bukatu aurretik antolatuko dituen normaltasunez egitea».

Azken jardunaldia

Asteburu betea dute TAKeko arraunlariek, izan ere, etzi, larunbatean batelaren ligako azken jardunaldia dute nagusien mailako neskek, eta igandean, berriz, Gipuzkoako Txapelketa izango da. Azken

hau egun bakar batean jokatzeko da, eta Orio eta Hondarribia bezalako «aurkari gogorak» izango dituzte Tolosaldekoek. Igandean bertan izango da batelaren ligako sari banaketa.

TAKetik zaleak deitzen dituzte azken jardunaldira eta Gipuzkoako txapelketa gerturatu daitezkeen animoak ematera. San Pedron izango dira biak.

Laburrak

Ezker abertzaleak batzarra egingo du gaur udaletxean

POLITIKA » Ezker abertzaleak batzarra deitu du gaurko. Hau 20:00etan izango da udaletxeko batzar aretoa. Martxoko hauteskunde balarazioa egingo dute batzarrean, eta aurrera begirako itxaropenak ere aztertuko dituzte, besteak beste.

Arantzazura Igoaldira joateko autobusa

ERLUIA » Azken hamar urteetan egin duten bezala, bihar Arantzazura Igoaldia egingo du Elizbarutiak antolatuta. Bertara joateko, autobusa antolatu dute eskualdeko. Hain zuzen ere, 07:55ean irteerako da autobusa Santa Klaratik. Txartelak parrokietan eskura daitezke.

Tolosako Orfeoien kontzertua datorren astean

MUSIKA » Datorren asteazkenean, hilaren 8an, 20:30ean, Tolosako Orfeoien kontzertua emango du Tolosako San Frantzisko elizan. Musika ekitaldi hau tradizio baten barruan sartzen da; hain zuzen ere, Aste Santu aurreko sasoiaren elizetan musika eta auto sakramentalak eskaintzeko tradizioa. Tolosako Orfeoien, Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean, Gabriel Faure-ren *Requiem* interpretatuko du, Borja Rubiños organo jolearen, solisten, Amaya Arberas sopranoaren eta Pedro Quilarte baritonoaren laguntzarekin.

'Wonderful town' filma gaur, Zine Forumean

ZINEMA » Osteguneroko moduan, gaur Zine Forum saioa izango da Leidor aretoa. Wonderful town filma izango da ikusgai jatorrizko bertsioan. Lehen saioa 19:15ean izango da, eta bigarrena, berriz, 21:45ean.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Tolosan zerbitzaria behar da esperientziarekin. Larunbatetarako. 680 10 39 59 / 635 75 25 23.

■ **Garbiketak.** Bigi garbitasunak. Alfonbrak, etxeak, bulegoak... garbitzeko prest. Deitu inongo konprometuz gabe. 638 94 46 04 (Irene) edota 695 70 82 71 (Itaso).

ALOKAIRUA

■ **Baserria.** Borda edo baserri bat hartuko genuke alokairuan. Tolosaldean edota Leitzaldean. Garestiegi ez dena. Deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

Zuhaitz Eguna egingo dute etzi, Ikastolaren eraikin berrira joateko bidean

ERREDAKZIOA

Irurako Udalak Zuhaitz Eguna antolatatu du etzizirako. 16:00etan hasiko dira landaketak egiten Ikastolaren eraikin berrira joateko bidean. Landaketak egin ondoren merienda egingo dute.

GAP programan parte hartzeko deialdia

Irurako Udalak, Tolosaldea Garazten eskualdeko garapen agentziaren koordinaziopean, bat egin du mundu mailan antolatzen den ingurumenaren aldeko GAP programarekin (Ekintza Plan Globala). Programa horren helburua biztanleek beraien etxeetatik ingurumena babestea eta kontsumo arduratsua bultzatzea da.

Bertan izena emateko azken eguna hilaren 5a da. Parte-hartzea doakoa eta erraza da. Informazio gehiago udaletxean edo www.udalsarea21.net webgunean aurkitu daiteke.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain

Medikua: 943 683361

Bidegolan. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdi: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldea bus: 943 650621

Leitzarano autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurrumendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Pilota partiden artean zinta mozketa egin zuten Ugaldek eta Olanok. HITZA

«Oso gustura» frontoiaren inaugurazioarekin

Irura » Pilotariak «joko polita» erakutsi zuten eta «jendea oso gustura» egon zen, Udaletik azaldu dutenez.

ERREDAKZIOA

Irurako Udala «oso gustura» agertu da frontoiaren inaugurazio ofizialaren ekitaldiarekin. Profesionalen arteko bi pilota partida jokatu ziren eta «joko polita erakutsi zuten», azaldu du Marimi Ugalde Irurako alkateak. «Jendea oso gustura gelditu zen». Ikuslegoaren aldetik «erantzun ona» izan zen eta Irurako zein inguruko herrietako-

ak joan ziren pilota partidak ikusitera. Partida nagusian Titin-Laskurain bikoteak 22-18 irabazi zion Gonzalez-Barriolari. Aurreko partidatan, Mikel Goñi-Galarza VI.a bikoteak 22-15 irabazi zion Galarza V.a-Arrutiri.

Bi partiden artean inaugurazio ekitaldia egin zen eta alkateak eta Jose Luis Olano zinegotziak moztu zuten zinta. Ondoren Antton Gabellanesek ohorezko satea egin zuen. Aurretik herriko dantzariak agurra dantzatu zuten. Jaialdiaren amaieran aipatzekoa da pilotariak erakutsi zuten begirunea, autografoak sinatzen aritu baitziren luzez. Batez ere Barriola leitzarrarengana jo zuten autografo eskatzaileek.

Korrika Kulturala «arrakastatsua»

ERREDAKZIOA

Eskualdean Korrika 16ren inguruan hainbat ekitaldi egiten ari dira egunotan. Adunaren ere Korrika Kulturalaren baitan egin zituzten ekitaldiak aurreko larunbatean eta bertako Korrika Batzordeak azaldu zuenez, «arrakastatsua» izan ziren.

Antolatutako ekitaldietako bat Korrikako materialen denda jartzea izan zen. «Arrakasta handia izan zuen eta jende dextentek materiala erosi zuen», azaldu dute Batzordetik. Bestalde, Korrikako DVDaren emanaldia izan zen kultur aretoan. Gauean, Txulobi elkartearen bertso afaria izan zuten. Afalondorenean Jokin Uranga eta Anjel Mari Peñagarikano bertso-lariak ordu eta erdiko saioarekin bertan zeuden 30 afalkide inguru animatu zituzten.

Batzordetik azaltzen dutenez, «jendea giroten hasia da jada». Hurrengo hitzordua gaur bertan izango da, Adunatik pasatzen baita Korrika. 12:45ean Uztartzako aparkalekuan bilduko dira denak



Adunaren egindako bertso afariaren une bat. HITZA

eta 13:17ean Korrika iristen denaroko bakoitza bere lekuetara joango da korri egiteko. Gero, arratsaldean merienda izango da Txulobi elkartearen. Batzordetik Korrikan parte hartzeko eta merienda jartzeko gonbitea luzatzen dute.

Garmendiaren eta Castroren senideak, lekukoa eramaten

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak jakinarazi du gaur herriatik pasatzen den Korrikaren kilometro bat erosi duela ezker

G Gutunak

Euskarak aldaketa behar du

Euskal Herriarekin batera euskarak garai erabakigarrian aurkitzen da. Euskarak ere aldaketa garai bizi du. Aldaketa hau norabide egokian emango dela ziurtatzea euskaldunon esku dago; gure esku dago mendetako galerarako joera itzuli eta euskarari, eta ondorioz Euskal Herriari, etorkizuna ziurtatuko dion eskenatoki demokratikoa eskuratzea.

Azken hamarkadetan, hilzorian zegoen euskarari hauspoa eman eta neurri bateko berreskurapena (ez bere lurralde osoa ezta funtzio guztietan ere) lortu da euskalgintzaren, eragile batzuen eta herritarren ekimenez. Baina indarrean dauden marko juridiko-politikoaren arabera euskararen berreskurapen lanak berea eman du. Euskaltzaleon ekimenez, adierazleren batedo beste hobegotuz dezagenu, euskarari mugatu batean zabalten jarraituko dugu (zalantzarik gabe egunez egun egin beharreko lana). Baina ez da nahikoa. Bide honetatik ez diogu euskarari etorkizuna ziurtatuko, are gutxiago Euskal Herri euskalduna erdie-tisiko.

Euskararen aldeko lanean garai berria abiatu beharra dago. Euskalgintzak eta euskaltzaleek urteetan aldarrikatu duten aldaketa gauzatzeko tenorea iritsi da. Baina aldaketa hau ezin da edozein modukoa izan. Sektore erregionalistek aldaketa premia hori indarrean dauden menpeko hizkuntza poli-

tikak berritzeko baliatu nahi dute, herritarren gogoari eta euskararen beharrei iruzur eginez.

Aldaketa horren muina izango den hizkuntza politika berriak guxtienezko oinarri argiak eta zehatzak izan behar ditu:

-Hizkuntza politika horrek euskararen berreskurapen osoa, hau da, bere normalizazioa lurralde osoan eta funtzio guztietan, izango du helburu. Beraz, Euskal Herria euskalduna izango du helburu.

-Hizkuntza politika nazionala, burujabea eta bakarra izango da.

-Euskara Euskal Herriko hizkuntza nazional, berezkoa eta lehentasuneko gisa onartuko du.

-Euskara ezagutu beharreko hizkuntza dela onartuko du.

-Euskara eta euskal identitate eta kultura bereiztezinak direla onartuko du.

-Euskal herritarrok ditugun hizkuntza eskubideak bermatzeko, euskararen ofizialtasuna onartzeko eta hizkuntza politikaren gauzapean arautzeko Euskararen Lege Berria onartu behar da.

Helburu honekin, euskaltzaleok urteetako ahaleginean sakontzea eta biderkatzea ezinbestekoa dugu. Euskal Herria euskalduna helburu, normalizazio prozesuan jauzi berria eman beharra dugu. Ezker Abertzalea euskarak behar duen eskenatoki berria erakitzen burubelarrari inplikatu da, eremu guztietan eta ahalgintza osoarekin.

Euskarari eta Euska Herriari iruzurrik ez! Ofizialtasuna!

Tolosaldeko ezker abertzalea.

Laburrak

Tutorearen bisita KZgunean hilaren 22an

ADUNA » KZgunean tutorearen bisita izango dute hilaren 22an, asteazkena, 09:00etatik 13:00etara. Bestalde, hil honetan zehar, astearte eta ostiral arratsaldeetan zabalik egongo da KZgunea, liburutegiko garaian, hau da, 17:30etik 19:30era.

Sanchez ipuin kontalaria, gaur liburutegian

ANOETA » Idoia Sanchez ipuin kontalariak saioa emango du, gaur, Anoetako liburutegian. Emanaldia Galtzaundi Euskara Elkarteak antolatatu du. Saioa 18:30ean hasiko da.

KZguneako ordutegia apirilean zehar

ANOETA » KZgunearen ordutegia goizez izango da apirilean zehar. Hiru egunetan egongo da zabalik, astearte, asteazken eta ostegunetan. Ordutegia 11:00etatik 13:00etara izango da.

Laskorain abesbatzaren kontzertua izango da bihar

Tolosa » Laskorain txiki lehenengo eta ondoren gaztetxoan txanda izango da; Sakramentinoetan egingo dute.

ERREDAKZIOA

Bihar 20:00etan, Tolosako Sakramentinoen elizan, Laskorain abesbatzak kontzertu bat eskainiko du. Lehenik, Laskorain txiki abesbatza ariko da, *Tutira mai, Iukaidi iukaida, Lau euskal abesti* eta *Hine ma tov* abesteko.

Ondoren, Laskorain abesbatzaren txanda izango da eta sei abesti prestatu dituzte biharko kontzerturako: *Adoramus te, Titanic, Kannon umorez, Dubula, Loriak udan intza bezela* eta *The lion sleeps tonight*.

Guztien zuzendaria Naiara Mintegia tolosarra da eta abesti askotan pianoaren laguntza izango dute neska-mutulek. Herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara.

UEMAk Osakidetzaren euskararekiko jarrera salatuko du, mozioa aurkeztuz

Euskara » Villabonako, Tolosako eta Ibarraiko anbulatorioetan hainbat langilek ez dakite euskara; hori «atzera pausoa da».

ERREDAKZIOA

Osakidetzak abian jarritako azken lanpostu publikoen deialdiaren aurkako mozioa sartuko du UEMAK Tolosaldeko Udaletan ere, datorren astetik aurrera. Funtsen, Osakidetzak «atzerapauso handia eman duela» salatuko dute.

Mozio honen bidez, Udalek Osakidetzari eta EAEko hizkuntz politikaren arduradunei gogorazki nahi diete eskualde euskaldunetan «osasun zerbitzua ematen duten langile guztiak euskaldunak izan behar dutela, eta eskatzen diete hori bete dadin eskura ditzuten neurriak hartuta».

Ikusita egungo lege markoak eta Osakidetzak paperean onartzen dituzten «eskubideak ez direla betetzen eta urraketak sistematikoak direla», UEMAK arreta handiz begiratu izan die Osakidetzaren lanpostu publikoen deialdiari eta osasun etxeetako egunerokoari. Honela dio tartean: «Osakidetzaren azken lan deialdiak ez du bermatuko osasun zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea. Bere garaian Osakidetzak onartutako plana ez baita beteko, eta euskaldunok bigarren mailako herritar gisa geratuko gara. Berriz ere osasun zerbitzuak erdaraz jasotzera kondenatuta gaude, Osakidetzak ez baitigu ematen zerbitzua euskaraz jasotzeko bermerik».

Horrez gain, idatzian, Udalek Osakidetzako erantzule politikoei eskatuko diete euskaldunen hizkuntz eskubideak kontuan har ditzaten, «sindikatu korporatibista

erdaltzaleen interesen aurrean: Euskaldunen hizkuntz eskubideak eta CC.OO. eta SACHE sindikatuen interesak balantzan jartzean, Osakidetzak azken horien alde egin du». Beraz, Osakidetzari gogorazten diete «euskarak merezi duen tokia izan behar duela eskualdeko anbulatorioetan».

Mozioarekin bat egingo duten Udalek euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatuko dituzte. Bide batez, dei egiten diete euskaldunei «euskaldun koherente gisa» joka dezaten eta «euskaldunen aurkako hizkuntza politika beren egunerokotasunean sala dezaten». Salaketak Behatokia bideratzeko bideak hauek dira: UEMAKouadaletxeetara jotzea eta salaketa han jartzea, (www.euskararentelefonoa.org edo 902.194.332 telefonoan).

Tolosaldean hainbat kasu

Tolosaldeko anbulatorioetako kasuak hauek dira: Ibarra familia

mediku bat dago eta 2. hizkuntz eskakizuna eta derrigortasun data 2010eko abendura arte ez du eskara mailarik egiaztatu beharko.

Villabonan familia mediku eta batek 2. hizkuntz eskakizuna eta derrigortasun data Ibarraokoren data berean beteko zaio. Villabonako beste familia medikuak 2. hizkuntz eskakizuna, data gabe dauka. Horrek esan nahi du ez duela inoiz euskara mailarik egiaztatu beharko. Euskara, beraz, meritu izango da, eta ez derrigorrezkoa lanpostua eskuratzeko.

Erizain bat Ibarra medikua eragoz berean dago. Bi erizain 2. hizkuntz eskakizuna dute, baina data gabe.

Tolosan familia mediku batek 2. hizkuntz eskakizuna dauka, data gabe. Erizain batek, berriz, 2. hizkuntz eskakizuna eta derrigortasun data 2009ko abendura arte. Erizain bat 2. hizkuntz eskakizuna, datarik gabe.

ERREDAKZIOA

Amezketako azken ohiko bilkuran herriguneko ur sarea eta zoru berriaren obra Andatza enpresari esleitu zaito: herriguneko ur sarea eta zoria eraberritzeko obrarako Baldintza Pleguak onartu ondoren azkenean, 162.400 euro kostako da. Hilaren 12ko Aberri Eguna-ren aldeko mozioa ere sartu eta onartu zuten.

Batzordean bilera

Hirigintza batzordean industrialdeko proposamenaz aritu ziren. Herriko arkitektoak azaldu zuten orain arte egindako zirriborroa,

Ur sarearen obra Andatza enpresarentzat

kontuan hartuta, helburua dela errepidea eta errekararen artean kokatu daitezela elementu hauek: dotazioak, zerbitzuak, kirol gunek eta aparkalekuak. Proposamen honen ondorioz, industria gunea errekaraz beste aldera geratuko litzateke. Zirriborroa hiru taldeek onartu zuten eta hurrengo pausok honakoak izango dira: arkitektoak balorazio ekonomikoa egitea eta jabetzarekin hitz egitea.

«Gazte Taldeak idatzi baten

bidez agertu zigun musika ekipo baten beharra zegoela edozein festa antolatzeko. Ondorioz, aurrekontua eskatu dute eta horren arabera 1000 euro inguruko kostea izango du. Aztertutik ondoren, garbi geratu zen merezi duela erosteak».

Aralar Parkeko bideei dagokionez, oinezko bide sare berri bat irekitzekotan dira. Foru Aldundia izango da ireki, seinalizatu eta mantenduko duena.

Minak, Larraitz eta San Martingo proiektuei heldu zieten: Aralar Parke Naturala eta Enerio-Aralarko Mankomunitatearekin ari diraharremantetan proiektu hauek aurrera eramateko. Larraitz eta San Martingo proiektuetan laguntzeko prest daude, 600. urteurreneko Enirio-Aralarren ekitaldiaren barne. Mankomunitatearekin, Abaltzisketak eta Amezketak bat egingo dute proiektu hauek aurrera ateratzeko.

Zazpitu zentralaren emaitzak azaldu zituzten: elkartearen lehendakari berria Jose Ignacio Hormaecheko izango da. Iazko produkzioa 2.302.323 KW orduko izan zen eta ondorioz 191.508 euro fakturatu da. Azkeneko akordioaren ondoren, EVE gelditzen da %40ekin, Tolosa %30ekin eta Amezketak %30ekin. Hiru urte inguruan, Tolosa eta Amezketak %45ekin geratu ondoren, bi Udalak dirua jasotzen hasiko dira.

Hilberriak eta Urteurrenak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

JOXE LIZASO MENDIZABAL

«Kantatu ez dakit, baina di-da hasi bai behintzat!»



AZPETIA
2009ko apirilaren 2a

Uztarría Komunikazio Taldea

JOXE LIZASO MENDIZABAL

Plazarik plaza zendun urteroko zita, Euskal Herri osora eginaz bisita, bertsotarako dohaiz burua jantzi. Orain bazoaz, baina bertsoko utzita gure oroiemenean betiko jositia.



AZPETIA
2009ko apirilaren 2a

Erriarraitz Bertsozale Elkartea

IV. urteurrena
BELEN JAUREGIONDO MENDIA

2005eko apirilaren 2an hil zen, 50 urte zituela



Maitasunik gabe, nor bizi daiteke? Nork heriotza gaindi, maitasunik gabe?

BEASAIN
2009ko apirilaren 2a

Joan Mari, Iker eta Lorea, Nagore, Iñaki eta Aner

SANTI MENDIBIL

Zu sortu zinen enbor beretik sortuko dira besteak, bide horretan iraungo duten zuhaitz adaxka gazteak.



Maite zaitugu aitona

BEASAIN
2009ko apirilaren 2a

Ioritz eta Aitzol Begue

SANTIAGO MENDIBIL

Jauna

Mila, Une latz hauetan Uzturpe ikastolako zure lankide ohiek bat egiten dugu zure sendiaren saminarekin Besarkada goxo bat.



IBARRAN
2009ko apirilaren 2a

Uzturpe ikastolako langileak

Haurren artean irakurzaletasuna bultzatzeko eguna da gaur

Haur Liburuaren Eguna » Tolosan, Bidegoianen, Berrobin, Areson eta Leitza eguna ospatzeko ekitaldiak antolatu dituzte.

ERREDAKZIOA

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna da gaurkoa. 1965. urtetik ospatzen da eta Hans Christian Andersen idazlearen jaiotza eguna delako aukeratu zuten, hain zuzen, apirilaren 2a izendatzea Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna bezala.


Eguna IBBY elkarteak (International Board on Books for Young People) bultzatzen du eta urtero herrialde batek mundu guztian zehar barreiatzen den mezua eta kartela egiteko arduraren izaten du. Aurten Egipetoko txanda izan da

eta Hani D. El-Masri izan du kartela eta mezua egiteko arduraria. Egipetarrak 'Ni naiz mundua' leloa aukeratu du eta horrela diomezuaren hasierak: «Ni naiz mundua, eta mundua ni naiz, zer nahi huraxe bainaiz, neure liburuaren bidez. Hitzek eta irudiek, hitz lauz edo bersotan, gertura naramate, eta urrunaldi berean».

Ekitaldiak hainbat herritan

Eskualdeko hainbat herritarok liburutegian ere ospatuko dute gaurko eguna; Tolosan, Berrobin, Bidegoianen, Areson eta Leitza, hain zuzen ere. Argitu behar da, hala ere, Bidegoianen atzo arratsaldean ospatu zutela eguna gurasoek umeei irakurketa eginaz.

Berrobin gaur 12:00etan herriko eskolako umeak liburutegia jango dira eta beraien arteko irakurketa egingo dute. Bi ekitaldi



Hani D. El-Masri egipetarrak egindako kartela. HITZA

hauek Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Literatura Elkarteak antolatutakoak dira eta euren «originaltasuna» dela eta saria ere jaso du, Bidegoianek bezala.

Tolosan gaurko egunean liburua maileguan hartzen duten gazteek piruleta bat jasoko dute eta *Hans Kankailu* ipuinari buruzko erakusketa ere inauguratuko dute. Erakusketa ipuin landu duteneko ikastetxe desberdinetako umeek egindako marrazkiekin osatu dute eta hilaren 23ra arte, Liburuaren Nazioarteko Eguna arte, egongo da zabalik haur liburutegian. Marrazkiak egin dituzten ume guztien artean, gainera, liburuak zozketatuko dituzte. Gaur eta bihar bost urteko haurrei eskolako bisita gidatuak ere egingo dituzte. Era berean, Zarautzeko Miriam Mendozoa ipuin kontalariak liburutegiak antolatu ohi duen Ipuin Txokoaren barruan saioa eskainiko du gaur 18:00etan. Saioa 3 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago.

Leitza, bere aldetik, Galtzagorri IBBYrekin batera antolatutako ekitaldiak izango dituzte urtero egin ohi duten moduan. 12:00etan herriko liburutegian Ana Meabe ipuin-kontalariaren saioa izango da eta Leitza zuzen Aresoko eskolako lehen zikloko umeek, gainera, IBBYren aurtengo ipuina zein kartela landuko dituzte.

675.781 euro Julian Gaiarre berritzeko

Ibarra » Pasa den astean egindako osoko bilkuran lanak Construcciones Fresneda enpresari esleitzea erabaki zuten.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak pasa den astean egindako osoko bilkuran Julian Gaiarre kalearen erabateko berrurbanizazioa Construcciones Fresneda enpresari esleitzea erabaki zuten. Lanek 675.781 euroaren aurrekontua izango dutela ere adostu zuten.

Lanak datozen hilabeteetan gauzatuko dituzte eta gune honetako auzokideen bizi-kalitatea nabarmen hobetuko da Udalaren



Julian Gaiarre kaleko traba arkitektonikoak kenduko dituzte. R. CALVO

kopuru hori guztia Julian Gaiarre berrurbanizatzeko lanetan inbertitzea erabaki du. «Lan hauek duten garrantziagatik eta ibartar askoren ondorri mesedegarriak izango dituelako».

Argiteria, hiri-altzariak...

Horretaz gain, herriko argiteria aldatuko dute, hiri-altzari berriak ipiniko dituzte eta saneamendu sarea ere hobetuko dute «gune honetako auzotarren bizi-kalitatea hobetzeko», Udalak esandakoaren arabera.

Aipatutakoaz gain, ibilgailuen bidea asfaltatu eta garai bateko ikuztegia konponduko dute. Era honetan, Udalak ibartarrek aspalditik espero zuten hirigintzako jarduketa sustatuko du, «ez baita ahaztu behar Julian Gaiarre kalearen ingurua egoera aski eskasean zegoela, eta orain behintzat konpontzeko bidean jarriko dela», gaineratu du.

Bestalde, udal ordezkariak egindako osoko bilkuran hirigintzako plangintzaren idazketa Arkigeft enpresari esleitzea ere onartu zuten. «Erabaki honek aurrerapen garrantzitsua dakar Ibarrako garapen-lerroak zehazteko prozesuan. Hortik aterako den dokumentuak gidatuko ditu datozen urteetako udal-politikak eta egituratuko du herriko etorkizuna», esan dute Udalako arduradunek.

aburuz, dauden traba arkitektonikoak ezabatuko baitdituzte.

Berrikuntzak

Julian Gaiarre kalean egingo dituzten berrikuntzei esker iragarritasun baldintzetara egokituko dute aipatu gunea. Horrela gaur egun inguru horretatik igarotzen diren bizilagunei eragotzen dieten traba arkitektonikoak kenduko dituzte.

Finantzazioari dagokionez, krisiaren ondorioei aurre egiteko Espainiako Gobernuak onartutako laguntza erabiliko dute. Udalak

Laburrak

Bartola Jaiak antolatzeke gutzira egingo dute gaur

IBARRA » Bartolaren Batzarrak hileko lehen ostegunetan eginen duen moduan batzarra egingo du gaur 19:30ean herriko Kultur Etxean. Bertan aurtengo Bartola Jaiak antolatzea izango dute hizpide. Lan taldeetako kideei eta herritarrei oro har, bertaratzeko eskatu diete.

Lagun ugari, Axun Aierberen omenaldian

IBARRA » Omenaldi hunkigarria egin zioten atzo EHUKo Gasteizeko Letren Fakultatean orain urtebete hildako Axun Aierbe ibartarri. Fernando Garcia Murga Letren Fakultateko dekanok hartu zuen hitza, lehenik eta behin, eta ondoren ikus-entzunezko bat jarri zuten. Xabier Payak, Jon Kortazarrek eta Miren Azkaratek hitz egin zuten gero eta amaitzean musika emanaldia ere izan zen.

Energia Berriztagarrien inguruko hitzaldia, bihar

BERASTEGI » Berastegiko Aldin Kultur Elkarteak *Energia Berriztagarrien Aplikazioa eta Praktikotasuna* izeneko hitzaldia antolatu du biharko, 20:00etan herriko Gaitainondo Jubilatuta Elkartearen. Hitzaldia Sinergia Sosteniblek eskainiko du eta herritar guztiei joateko deia egin diete.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



lazio finala errepikatzeke Barriolak eta Bengoetxea VI.ak bi partida irabazi beharko lituzkete. NAIARA GARZIA

Bi leitzarrak buruz-buruko bigarren txapelaren bila

Leitza » Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea final-laurdenetan sartuko dira Lehenengo Mailako Banakako Txapelketan.

ASIER IMAZ

Txapeladuna eta Abel Barriola herenegun Bilbon elkartu ziren beste 18 pilotarirekin batera. Bertan Lehen Mailako Eskuz Banakako Txapelketa aurkeztu zuten.

Oinatz Bengoetxea iaz lortutako txapela defendatu nahiko du, Abel Barriolak behingoz bigarrena jantzi. Hala eta guztiz ere, faborito nagusiak Aimar Olaizola eta batez ere Juan Martinez Irujo izanen dira.

«Oso zaila izanen da»

Ekainaren 7an jakingo da 2009ko buruz buruko txapeladuna nor izango den. Ordura arte, Bengoetxea VI.aren aurkariek elastiko urdina jantzi beharko dute. Leitzarren esanetan ordea titulua defendatzea ez da erraza izango.

Oinatz Bengoetxeak aurtengo txapelketa «oso irekia» ikusten du, «txapela irabazteko hautagai ugari baitaude». Ondorioz, leitzarraren iritzian «oso zaila izanen da. Ia urtero txapeladunaren izena aldatu egiten da eta zerbaitengatik da hori. Behetik joko onarekin datorren edozein pilotari oso arrisku-tsua izanen da».

Bere buruaren gainean, ilusioz beterik dagoela onartu du Oinatz Bengoetxeak. Jokoz aurkitzeaz

gain, nola ez, entrenamendu zehatzekin hasteko asmoa ere azaldu du txapeladunak.

Leitzarrentzat finala garesti

Banakako Txapelketaren lehen partidak asteburuan jokatu dira. Leitzarrak laugarren kanporaketan, maiatzan, hasiko dira lehian, final-laurdenetan hain zuzen ere.

Bengoetxea VI.ak Patxi Ruiz, Leiza, Eulate edota Berasaluze IX.aren aurka jokatu beharko du. Irabaziz gero, Irujo eduki lezake zain finalerdietan.

Abel Barriolak aurkari bezala Urberuaga, Retegi Bi, Begino edota Aimar Olaizola edukiko du. Beraz, Txapelketako lehen partidari goizuetarra eduki lezake aurrean Barriolak. Goizegi ez ote?

Gutunak

Tolosako bi gazteen kontrako epaiketaren aurrean: elkartasuna eta salaketa

Tolosako AHT Gelditu Elkarlanak astelehenean herri honetan epaituak izan ziren bigazteekin bat egiten du eta bere elkartasuna adierazina die Eusko Jaurlaritzaren jarrikeria salatzen duen bitartean.

Bi gazte hauek terroristatzat jo zituzten haien iritziz Segiko paper bat zeukatelako bakarrik. Jada ez dute nahiko terrorista ez den erakunde bat terroristatzat hartzea, eta paper bat izategatik ere terroristatzat hartzen zaie. Berriro ere lege eta eskubideen okerkeri galant baten aurrean gaude. Justizia eta legeak aspaldi eman ziren bizkar herri honetan!

Gure herriko agintariek azken urteotan honetaz ohituak gaituzte. Dena den AHTren aurkako mugimendutik bereziki salatu nahi dugu jarrera kriminalizatzaile hau eta AHTren aurkako pertsonaiak «terroristekin» parekatzen. Beti bezala honen helburuak argi daude: alde batetik ekintzaileak ikaraztea eta burokrrazia eta zigorraren armiarma sarean sartzea. Bestetik, mugimendua kriminizatzea, gizarzatean «terrorista» bezala aurkeztea. Egia esanda, horrela egin gabe ez lukete haien errepresioa gauzaterik eta justifikatzerik izango.

Hau ez da gertatzen den lehen aldia. Tolosako epaitegi berdinean Beasaingo beste bi ekintzaile epaituak izan ziren 2006ko azaroaren 3an pankarta bat eustegatik. 2008eko irailaren 28an erantzain batzuk AHTen aurkako ekintzaileak jipoitu zuten.

Aurtengo urtarillaren 17an AHT Gelditu Elkarlanak Urbinan (Araba) antolatu zuen manifestal-

dian Ertzaintzaren jipoiak paregabeoak izan ziren. Bertan 8 izan ziren atxilotuak. Hauek ere «terroristatzat» hartu zituzten: 3 egun inkomunikatuak izan ziren eta gero Madrilgo Auzitegi nazionalera bidaltzen saiatu ziren, haientzako beste «terrorista» batzuk gehiago izango balira bezala. Pedraz epaileak kasu horri uko egin zion. Horretaz gain, kriminalizazioa beste eremuetara ere zabaldu da, alkateak herri-kontsultak egitegatik mehatxatuak izatean... Horregatik, guretzat argi dago gure borrokaren errepresio neurriak bestela ulertezinak baitira. Aldi berean guretzako proiektu honen inposizioa are eta argiago gelditzen da, indarreak inposatu nahi baitute. Errepresio eta kriminalizazioek ez gaituzte geldituko, AHTren kontrako 1000 arrazoiz baitaizkagu.

Tolosako AHT Gelditu Elkarlana!



Altzok eta Alegiak jokatu duten finalerako sarrerak salgai. A. IMAZ

Bertsolar HITZA Desafioaren finalerako sarrerak

Ibarra » Gaztetxean jokatu dute finala Alegiak eta Altzok etzi, 14:00etan hasiko den bertso bazkarian.

A. IMAZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Bertsolar HITZA Desafioaren finala Ibarra Gaztetxean ospatuko da etzi, hilaren 4an. Bertso bazkaria 14:00etan hasiko da eta izena emateko aukerak zabalik jarraitzen du. Horretarako bi aukera daude: Ibarra, Alegiako edo Altzoko taldeetako kideren bati esanaz edota

687 41 01 18 telefono zenbakira dituta.

Bertso bazkaria 20 euro balio ditu.

Gai-jartzailea eta bertsolariak

Protagonista ugari egongo dira Ibarra Gaztetxean. Hirugarren gelditu diren ibarretatik hasi eta finalean egongo diren 8 bertsolarietara. Tartean, Amaia Agirre gai-jartzailea. Berak jarritako ariketekin jolasean ondorengo bertsolariarik dira: Alegiatik Iriarte, Zaztarre, Felix eta Beñat. Altzoren izenean, Iker Laso, Iñaki Olano, Adur Gorostidi eta Iñigo Gorostarzu.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak salgai Leitza

A. IMAZ

Pirritx, Porrotx eta Marimotots Leitza kiroldegian egongo dira maiatzaren 13an, asteazkenean, 18:00etan. Euren Pirritak ikusizuna eskainiko dute bertan eta sarrerak erosteko aukera hilaren 5ean amaituko da Maimur eta Asitz liburudendetan. 6 eurotan aurkitzen dira salgai. 2007, 2008 eta

2009 urteetan jaiotako haurtxoek ikusizuna doan ikusteko aukera edukiko dute.

Antolatzailerak eta laguntzaileak

Pailazo ospetsuenak Leitza ekartzeko lanetan, Erleta Ikastetxe Denok Bat Guraso Elkarte eta Aurrera KE aritu dira, Leitza Udalaren laguntzarekin.

BEZERO ARRETA-TELEMARKETIN LANGILEA

(Erreferentzia 2009-IR-BA)

Donostialdeko enpresa batek langilea behar du BEZERO ARRETA-TELEMARKETIN sailean aritzeko.

Eskaintzen da:

- Urtea amaitu arteko kontratua (luzagarria).
- Egun osoko lanaldia txandakako orduetegiarekin.

Eskatzen da:

- Administrazio edo komertzio arloko ikasketak
- Harremanetarako erraztasuna
- Telefono bidez komunikatzeko trezia
- Ofimatika programen ezagutza
- Komertzial lanetan eskarmentua izatea balioetsiko da

Bidali CV zehatza, apirilaren 9a baino lehen, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora. Ez ahaztu erreferentzia zehatztea.



11°
7°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	12°
HOTZENA	4°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: S5-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tosalsaldekohitza.info.
Webgunea: www.tosalsaldekohitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tosalsaldekohitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tosalsaldekohitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tosalsaldekohitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tosalsaldekohitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tosalsaldekohitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tosalsaldekohitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tosalsaldekohitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Ibarra.** Bartoloak antolatzekeo batzarra Kultur Etxean 19:30ean. Lan taldeetako kideei eta herritarrei oro har, bertara azaltzeko eskatu diete.
- **Leaburu.** 55ko kintoen festa apirilaren 4an Leaburun meza eta bazkaria bertako Ostatuan eginez. Izen-ematea, 943 671548an.
- **Tolosa.** Ipuin txokoa Haur Liburutegia, Nazioarteko Haur Liburuaren Eguna dela eta.
- **Tolosa.** Korrika batzordearen balorazio bilera Lizardi elkartearen 19:30ean.
- **Tolosa.** Igandean Gasteizen bukatuko den Korrika festarako autobusa 09:30ean Kultur Etxetik abiatuta eta Gasteiztik 19:30ean bueltatuko litzateke. Atari eta Zubiaurre tabernetan eta Tolosako Raku tabernan izen-ematea 10 euro ordainduz helduek eta 7 euro 20 urtetik beherakoek.
- **Tolosa.** Larunbat honetan, Erramu bezperan, Arantzazura igoera egingo dute, urtero bezala, Elizbarrutiak antolatuta. Bertara joateko autobusa antolatu dute. Hau San Frantzisko elizaren aurretik irtengo da 07:55ean. Txartelak parrokitan lortu ahaliko dira.

Zinema

- **Tolosa.** Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Film Laburren Zirkuitua izango da Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera.
- **Tolosa.** *Wonderfull town* filma jatorrizko bertsoan Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

Hitzaldia

- **Tolosa.** DBHko 4. mailako gurasoentzat hitzaldia emango du Alberto Ariño orientatzaileak 19:00etan Orixe institutuan Batxilerra eta Heziketa Zikloei buruz.

Irteerak

- **Tolosa.** Harizpek Galizara maiztaren 11tik 17ra irteera antolatu du 255 eurotan (ez bazkideek 260 euro). Izen-ematea, elkartearen.

» GUARDIAKOFARMAZIAK

- **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.



Herritarrek harrera beroa egin zioten Korrikari Leitza, pasa den larunbatean; Aresok lekukoa Basakabiruntz eramane zuten. A. IMAZ

Pasa den asteburuan, Leitza zeharkatu ondoren, gaur Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Ibarra, Anoeta, Irura, Villabona, Zizurkil eta Aduna zeharkatuko ditu euskararen aldeko lasterketak, 'Ongi etorri' lelopean.

Ika, ika, ika... Heldu da Korrika

ERREDAKZIOA

bilbide erdia igaro zuen herenegun Korrikak eta azkenean heldu da Tolosaldera, Ongi etorri lelopean. Gaur egingo du 10:41ean, hain zuzen ere, Ikaztegietatik. Ondoren, Alegia, Tolosa, Ibarra, Anoeta, Irura, Villabona, Zizurkil eta Aduna zeharkatuko ditu euskararen aldeko AEKren ekimen nazionalak.

Leitza zeharkatu zuen pasa den larunbatean eta honenbestez Tolosaldearen txanda da gaur. Tolosaldeko eta Leitzaaldeko HITZAK ere parte hartu nahi izan du Korrikan eta kilometro batean eramango du Korrikaren lekukoa. Atzera-

penik ezean, Ikaztegietatik sartuko da herria zeharkatu ostean, 11:00etan puntuan espero da Alegiara iristea. Alegiarrek, Altzo Azpin lekukoa altxatzei pasako diete.

N-1 errepidea alde batera utzi eta bidegorria dagoela aprobetxatuz, bertatik egingo dute Tolosa artekoa. Tolosara 11:26 aldean iristea espero da Olarrain auzotik. Hain zuzen ere, bertan egongo dira HITZAREN ordezkariek lekukoa hartzeko prest. Tolosa Herria gurutzatu eta Ibarra sartuko da 11:46ean eta berriro Tolosara pasako da 11:52an.

Ondoren, Anoetako lurretan sartuko da 12:25ean eta 12:31ean

Irurara iritsiko dira korrikalariak. Hemendik Villabonarako bidearekin jarraituko du Korrikak eta 12:44ean sartuko da herrian. Ondoren Zizurkilerako bidea hartuko du eta 13:04ean zeharkatuko du herria.

Eskualdeari agur esateko 13:17an Adunan sartuko da Korrika.

Korrika eskualdetik, gure webgunean

HITZAK gertutik ezagutzera eman nahi du Korrikaren ibilbidea eskualdetik. Horretarako, www.tosalsaldekohitza.info webgunean argazkiak eta bideoak izango dira ikusgai gaurtik aurrera.

Korrikaren amaiera Gasteizen

Ongi etorri leloa duen Korrikari ere agur esateko sasoi helduko zaio igandean. Baina agur alai bat izate aldera, Gasteizen festa handia antolatu du AEKk, egun osoko festa gainera.

Eskualdetik bertara joan nahi dutenentzat ere aukera zabaldu dute. Hain zuzen ere, Tolosan autobusa 09:30ean Kultur Etxetik abiatuko da eta Gasteiztik 19:30ean bueltatuko litzateke. Atari eta Zubiaurre tabernetan eta Tolosako Raku tabernan izena eman daiteke, 10 euro ordainduz helduek eta 7 euro 20 urtetik beherakoek.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetara batera. Mila esker.

- HITZAREN egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAREN egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak